


# FUNTSEZKO JARDUERAK

HD, gure enpresa berria, esfortzuz eta dedikazioz sortu dugu, ilea lehortzearen prozesua eroso eta erritmoarekin bihurtzeko. Produktuaren diseinuari esker, jendea interesatzen da arreta deitzen diolako. Diseinuari dagokionez, lehorgailua guk diseinatuko dugu baina lehorgailuaren piezak kontratatu ditugun enpresak sortuko dituzte. Parlux enpresarekin gure lehorgailua sortzea adostu dugu, Italiako enpresa bat da eta lehorgailuaren ia atal guztiak egingo digute. Funtsezko jarduerak diseinua denez, erosten den lehorgailuaren arabera desberdina izango da, baina sortu dugun berria, GH Silence, diseinu moderno eta dotorea izango du eta hainbat atal ditu:

- **Motorra:** Gure lehorgailuak daraman motorra K- Advance izeneko motor berria da, existitzen den modernoetako bat. 2.200 watt ditu ioi erantsiekin, hau da, motorra ionikoa da lehortu eta gero ilea ez arrotzeko. Motorrak potentzia eta iraupen handiagoa bermatzen du, energia-kontsumoa eta ingurumena babestuz. Isilgailu bat dauka ere, lehorgailuak zaratarik ez egitea eragiten duena.



- **Haizagailua:** Haizagailua 83 m<sup>3</sup>/orduko aire-kantitatea botatzen du. Bere materiala gardena eta plastikozkoa da, baina ez edozein plastikoa, baizik eta beroari eta hotzari eusten dion eta apurtzea zaila den plastiko gogor bat.



- **Etengailuak:** Soft etengailuak ditu, erosoago izateko. Hiru botoi ditu: Bat airearen abiadurarako, beste bat tenperatura desberdinetarako eta bestea bluetootherako. Lehenengo botoia airearen abiadura da, bi abiadura dituena; bigarren botoia tenperaturarena da, lau tenperatura dituena; eta hirugarren botoia bluetooth-a pizteko eta itzaltzeko da, nahi duzun gailua konektatu ahal izateko.



- **Egitura:** Lehorgailuaren diseinua guk diseinatu dugu, baina fabrikazioa eta atal guztiak Paluxek sortu dizkigu gure diseinua jarraituz. Lehorgailuaren egitura egiteko erabili ditugun materialak, lehorgailu arinagoa eta aldi berean eraginkorragoa izatea ahalbidetzen du. Lehorgailuaren egiturari metamaterial bat gehitu diogu, lehorgailua berotzen denean energia elektromagnetikoa xurgatzen duena, eta horrek lehorgailua ez berotzea eta bozgorailuari kalterik ez egitea eragiten du. Ere difusore bat eta kontzentratzaile bat ditu.



- **Bateria:** Bateriarako Samsungekin lan egin dugu eta enpresak bateria lehorgailuetan jarri digu txertatuta. 10.000 mA-ko karga ahalmena du eta bateriak 24 ordu iraun dezake etengabeko erabileran.



- **Bozgorailu:** Bozgorailurako JBL enpresarekin lan egin dugu. Enpresak bozgorailua lehorgailura egokitu digute eta, horregatik, diru kopuru bat ordaindu diegu. Bozgorailuak 24 orduko iraupena du bateria bezala, urarekiko erresistentea den diseinua du eta dena batera kargatzen da, hau da, lehorgailuaren bateria eta bozgorailua.



- **Kargagailua:** Samsungekin ere lan egin dugu kargagailuarekin, eta haiek sortu digute lehorgailurako kargagailua. 250 watt ditu, 12 cm neurtzen du eta azkar kargatzen da, hau da, 5 ordu behar ditu erabat kargatzeko.

